



SORTU-k ez du osteguneko manifestazio deialdiarekin bat egiten

Ikasle Abertzaleak Arrasaten ostegunerako iragarri duen manifestazio nazionalaren harira, hainbat eragile sozial eta politikori atxikimendua eskatu zaiela jakin ondoren, Leintz Bailarako SORTUk honako hau adierazi nahi du:

Azken egunotan publiko egin den aferan, ikasleen greba-eskubidearen eta antolakuntzaren alde Arizmendiko ikasleak gauzatzen ari diren partaidetza-prozesua balioan jarri eta errespetatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Honekin batera, funtsezko eskubide hau gauzatzeko prozesu horretan aldarrikapenak egin eta lantzea ere beharrezkoa dela deritzogu. Gauzak honela, aipatutako ahalduntze prozesua errespetatuz, manifestazio nazionala modu horretan deitzea neurritz kanpokoa iruditzen zaigu, eta ez dugu deialdiarekin bat egiten.

Era berean, kezka bizi dugu Arizmendiri buruz egiten duten balorazio politikoa. Kapitalismoak, modu batean edo bestean, eragile nahiz herritarron egunerokoan daukan eragina ez dugu zalantzan jartzen. Baina Arizmendik, ikasleak sistema elikatzen duen lan merkatuak hezten dituela, eta kultura kapitalista indartzen duela esatea, errealitatearekin bat ez datorrela iruditzen zaigu.

Mugak muga eta hutsuneak hutsune, gure herrian euskara eta komunitatea besteak beste, erdigunean jartzen dituzten hezkuntza-proiektuak aurretik aipatutako testuinguruan kokatzea, etsaiz nahastea dela iruditzen zaigu.

Espainiako erresuma inboluzio atzerakoi eta espainolista betean murgilduta dabilen honetan, Kataluniako hezkuntza sistemari eraso egiten edo euskararen kontrako neurriak iragartzen ari denean, hezkuntza sistema burujabe eta aurrerakoi baten alde indarrak batzeko unea da.

SORTU
2018-02-21